

EUSKERA TA EUSKALDUNAK

Uriarte-ko José R. jaunari.

*Euskal-erriyan bizi geranak
maite badegu euskera,
geren eche ta auso danetan
entzuten degun izkera,
jitsas-aruntza joan diran oyeke
Amerikako lurrera
eta an gozo sayaturikan
goratzen izkera au bera?...
jgu bañon euskal jatorraguak
dirala, nua esatera!!*

*¡Bai ala dira; berriz esaten
det biyotza chit pozturik,
an bizi dira leyal ta zintzo
elkar oso maitaturik!
Ama euskera zar kuñunari
gošoro begiraturik
beren biyotza ezkeñirikan
poztasunez zabaldurik,
odol sentzu ta pentsamentuaz
laztandu ta musaturik,*

*Argatik Amak jasotzen ditu
ayen on denak goguan,
eta pozkida nabaitutzen du
estiro bere kolkuan;
guziz maitaro esaten diyo
aingeru baten moduan:
nik zuben aña maitatzen duben
amarik ez da munduan,
argatik beti nai zaituztet nik
betiko nere onduan!*

*Saya zaitetzte aurrera ere
asnasa gozo batian,
amoriyozko gozotasunez
bildurik denak batian;
Ama euskara iduririkan
betiko borondatian,
bear bezala zutiturikan
indar sendo ta batian,
mundu ontako egun guziyak
oso bukatu artian.*

Arrazoi du bai ama maiteak
onela mintzatutzia,
komeni zaigu borondatia
beria esagutzia;
bere asmo ta gogo ederra
da gu batera biltzia,
seme leyal ta amoretsuak
elkarturik ibiltzia,
eta euskaldun jayo, azi, ta
euskal moduan illtzia.

Ez aztu bada euskal anayak
zer diyon gaur gure Amak,
biziro zintzo egin zaikigun
biyotz biyotzetik danak.
beragatikan asmo ekintza,
eta gañerako lanak,
kopet argiyaz ernai ta leyal
egin beraren esanak,
bere magalan jasuak izan
gaitezen emen geranak.

JOSÉ ARTOLA

